

LEGE ZARRA (FORUA) ETA VII: AZKEN-NAIAK (TESTAMENTUAK)

Iterakoan ondasunak nori itzi jakiteko, Foruak askatasunez jokatzeko dau baiña, beti, sendi-ardatzaren eskubideak zainduta.

Azken-naia iru eratakoea izan daiteke: 11-burukoea, anaitasunezkoa ta ordezkoearen bidekoea.

11-burukoea: Gaur be baliokoea da. Ilteko arriskuan dagoanak, uritik urrin dagoalakoe edo eskribaua urrin bizi dalakoe, azken-naia egin leike iru lekukoreen aurrean, naiz idatzita naiz berbaz.

Anaitasunezkoa: Foruak onartzen dau senar-emazteak biak batera egiten daben azken-naia, Gaztelako legeak ez dau onartzen, banan egin bear dabe. Baiña Foruan be bietatik bat urtea amaitu baiño lenago ilgo ba'lit, bizi danak ezin leike aldatu azken-naia. Azkenengo foru-batzeak ez da artu lege au.

Ordezkoaren bidezkoa: Gaztela'ko legean galazota dago, iñok ezin leike egin azken naia beste baten orde, baiña Bizkai'ko Foruan bai. Esaterako azken-naia egiten danean, seme-alabak txikiak ba'litaz eta jakin ez etxearen ardurea artzeko gai zein dan, orduan azken-naia egiten dauanak ordeko baten emoten dautso aukeratzea egiteko eskubidea. Elburu ori lortzeko beste bide bat izan daiteke ezkontzen diranean alkar-poderoso deritxon eskubidea alkarrari emotea.

Foruari jarraitu ezker, azken-naia adin eldua beteta bereala bideratu bear da, edo azkenengo semea edo alabea ezkontzen danean, baiña epe au luzatzeko oiturea sartu da eta alargunak luzaro euki al izaten dau ondasunen zaintza, baiña ez muga barik.

Foruak azken-naiak egiterakoak, basetxea osorik zainteari begiratzen dautso, orrelan ekonomi-arazoak sortu ez dakiozan etxeko jaunari. Orregaitik, azken-naia egiten dauanak aukeratu lei etxea artuko dauana, besteak alboratuta. Ori ondasunak sendi-ardatzekoak diranean, eta ondasun mobikorak diranean, askatasunaz emon leikioz berak nai dauanari. Eskubide oneri mugak ipiñi eutsozan 1.526n. urteko foruak. Bosten bat itzi lei ilten danaren aldeko otoitzak egiteko, baiña bosten au, ondasun mobikorak egon ezker, orretatik atera bear da. Alboratuta geratu diran senideak

auxe artu bear dabe beti: arra bat lur, teilla bat eta errial bat. Alboratze au ez da etxe-ondasun barik iztea, etxean bizi leike azken-naia ezkontu arte eta dote bat emotea be ondo litzake. Sendikoak izaten jarraitzen dabe eta ondorengo izendatua ondasuna beragandu baiño lenago ilgo ba'lit, azken-naia bako ondasunetan lez kideko izango litzakez.

Beste gauza bat dira legeaz izendatutako ondasunak (legitima foral): Legediak (Codigo) ondasunak zati bi egiten dauz, bata seme-alabentzat eta beste erdia nai daunari emoteko, baiña foruan etxeko guztiai emotekoak dira ondasunak baiña azken-naia egiten dauanak nai dauan erara. Onek batzuk aukeratu eta beste batzuk alboratu egin leikez. Bide ori artzen dau foruak, etxe osoa baten emoteko.

Foru Zarrean sendi-ardatzaren ondasunak ardatzez artuak ziran, ez ziran orra sartzen gero artuak edo erosiak oneik edonori emoteko aske egozan, gaur bostetik lau dira etorpidera sartzen diranak.

AMAI

Eldu gara Forua aztertzeke egin dogun lan onen azkene-ra. Iñoz bernegi gauzak esan ba'doguz, ez ikaratu, irakurle: Bizkai'ko seme on batek ezin berba egin leike gure Lege Zar edo Foruari buruz otz-otzik, biotzak be or zer-esana dauka. Geure-geureak diran balioak dagoz or eta orrean ezaugarri dogu Gernika'ko Zugatza. Begiratu daiogun, Trueba'tar Anton'en berbak gogoan doguzala:

Gure ibarretako
zugatz baten gerizpean
askatasuna dago
amar gizaldiren joanean.
Zugatz bedeinau au
zapuztuten edo zauritzen dauana
Jainkoagandik eta gizonakandik
izan bedi mndarikatua.
Agur zugatz maitea, beti zurekin biotz -biotzetik.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!